

## GOBERNU BATZARRA

2014. 12. 19

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko abenduaren 19an, goizeko 12:00etan
<b>Ibai Iriarte San Vicente</b>	Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko:
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Lore Agirre Zipitria</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez</b>	2.- 2014. urtean autokonpostajea eta auzokonpostajea egiten duten familiei hondakinen tasan %30eko diru laguntza emateko proposamena.
<b>Idazkaria:</b>	3.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2014Ko urriko faktura.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde.</b>	4.- Tolosako Kondeko Aldapa 11ko araubide bereziko etxe bizitza tasatuei dagokien oinarrien aldaketa, izapidetza berria eta aurretik tramitatutako guztia bertan behera uztea.
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	5.- Diru laguntzak familiei.
<b>Paulino Alonso Eraso.</b>	6.- Jangela soziala -hobari eskaera-.
	7.- 2015eko neguko kultur programazioa
	8.- Tolosako Musika Banda. 2015Eko egutegia.
	9.- Fundación Goyenechea de San Sebastian. Baratzak. Salbuespena edo hobarria.
	10.- Solicitud de Cristaleria Tolosa. Minoración del importe en la tasa de residuos.
	11.- Congregación Hermanas de la Providencia de GAP. Berraztertze errekurtsua Ondasun Higiezinaren Gaineko

Zergan.

12.- Recurso de reposición de Herrodle, S.L..  
Exención de la tasa de residuos.

13.- Garabide elkartearekin hitzarmena.

14.- Diru-laguntzak kanpoko ikasleei.

15.- Iurre auzoko parkea berritzeko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeke baldintz pleguak onartzea.

16.- Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordelekua egiteko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeke baldintz pleguak onartzea.

17.- Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeke baldintz pleguak onartzea.

18.- 40/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

## **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko abenduaren 12an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.- 2014. urtean autokonpostajea eta auzokonpostajea egiten duten familiei hondakinen tasan %30eko diru laguntza emateko proposamena.**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2013ko irailaren 6an erabaki zuen auto-konposta eta auzo-konposta egiten duten familiei hondakinen tasan %30eko diru laguntza ematea. Dirulaguntza hau ematearen arrazoia hau da; auzokonposta eta autokonpostaren bidez kudeatzen den hondakin zatia ez da bildu behar ez tratatu behar, eta horrek aurrezpenak sortzen ditu hondakinen kudeaketan.

Lehen aipatutako erabaki horretan, onuradunak diru laguntza hau jaso ahal izateko baldintzen artean hau aipatzen da:

*Onuradunak, hondakin organikoak konpostatzea, auzo konposta edo auto konpostaren bidez. Udalak horretarako dituen zerrendetan izena emanda izatea eta kurtsoa egina izatea.*

*Erabaki horretan ere ondorengo aipatzen da: Auzo konpostaje gunetan konposta ez bada behar bezala egiten, diru laguntzarik ez ematea taldeko subjektu pasibo inori.*

Bestalde, lehen aipatutako erabaki horretan dirulaguntza jasotzeko beste hiru baldintza ere ezartzen ziren: dirulaguntzaren onuradunak Tolosan erroldatuak egotea, zabor tasa bere izenean egotea eta udalarekin zorrik ez edukitzea.

2014. urtean, auzo-konpostajearen ekimena zabaldu egin da eta gaur egun 8 gune daude funtzionatzen. Lorearte deituriko etxebizitza multzoan ere 14 familiak auzokonposta egiten dute.

Tolosan auzokonposta egiteko 8 gune daude gaur egun:

- Alliri-Araba etorbidea: 2013n hasi ziren.
- Izaskun –Zabalarreta: 2013n hasi ziren. Gune hau 2014ko urriak 1en berritu egin zen eta orduan 10 pertsona gehiago sartu ziren.
- Larramendi1 –Arkaute: 2013n hasi ziren.
- Amarotz 1 : 2013n hasi ziren.
- Amarotz 2: 2014ko maiatzak 1en hasi ziren
- Larramendi 2 Uzturre: maiatzak 14ean hasi ziren.
- Iurre: uztailak 10ean hasi ziren
- San Esteban: Irailak 10ean hasi ziren.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, guneak funtzionamenduan daraman denbora kontuan hartu da. Dirulaguntza konpost-gunea martxan daraman denborarekiko proportzionala izango da. Hilabetearen lehen egunean martxan jarri ez bada, hurrengo hilabeteko lehen egunetik hasiko da kontatzen dirulaguntzaren kalkulurako.

Auzo-konpostajearen kasuan, gune guztietan, prozesuaren jarraipen zehatza egin da, bai Goroldiren bitartez, bai Ingurugiro Departamentuaren bitartez, eta konposta egoki egin dela ziurtatu daiteke.

Espedientean auzo-konpostajea egiten duten familien zerrenda agertzen da. Zerrenda honetan agertzen diren pertsonak ondorengo baldintza hauek betetzen dituzte:

- Gaiari buruz egindako bilera edo ikastaroetan parte hartu dute.
- Giltza eta kuboak jaso dute.
- Hondakin organikoa konpostatzen ari direla baieztatu digute.

Kontuhartzailentzan egiaztatua:

- Zaborren tasaren titularrak ote diren
- Udalarekin zorrik ote duten.

Idazkaritzan, egiaztatua:

- Tolosan erroldatuak izatea.

Autokonposta egiten duten biztanleen jarraipenaz mankomunitatea arduratzen da. Espediente honetan Mankomunitateko Teknikariak emandako txostena eransten da, autokonposta egiten dutenen zerrendarekin. Mankomunitateko teknikariak zerrenda horretan dauden bizilagunak autokonposta egiten dutela baieztatzen du.

Autokonposta egiten dutenen kasuan, dirulaguntza emango zaie lehen aipatu diren baldintzak betetzen dituztenei. Mankomunitateak emandako zerrendaz gain, dirulaguntzaren onuradunak izateko baldintzak betetzen dituztenen zerrenda agertzen da espedientean.

Hau guztia ikusirik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHEN.-** 2013. urtean egin zen bezala, auzokonpostajea eta autokonpostajea egiten duten familiei hondakinen tasaren %30eko dirulaguntza ematea, beti ere konpostatzen daramaten denbora kontuan hartuz, banaketa honen arabera:

	<b>Tasa</b>	<b>96,8</b>		
	Kopurua	Urte osoa	Hobaria bakoitza	Guztira
<b>Amarotz 1</b>	37	30%	29,04	1074,48
<b>Alliri</b>	19	30%	29,04	551,76
<b>Arkaute</b>	28	30%	29,04	813,12
<b>Lore Arte</b>	14	30%	29,04	406,56
<b>Zabalarreta</b>	Kopurua	<b>Urte osoa</b>		
	23	30%	29,04	667,92
		<b>Urriak 2 etxola 3 hilabete</b>		
	10	7,50%	7,26	72,6
		<b>8 hilabete</b>		
<b>Amarotz 2</b>	27	20%	19,36	522,72
		<b>7 hilabete</b>		
<b>Uzturre</b>	28	17,50%	16,94	474,32
		<b>5 hilabete</b>		
<b>Iurre</b>	27	12,5%	12,1	326,7
		<b>3 hilabete</b>		
<b>San Esteban</b>	7	8%	7,26	50,82
				<b>4.961</b>

<b>Autokonposta</b>	57	30%	29,04	<b>1.655,28</b>

		<b>Guztira</b>		<b>6.616,28</b>
--	--	----------------	--	-----------------

**BIGARRENA.-** Espedientearen zerrendetan agertzen diren titular bakoitzari dagokion dirulaguntza ordaintzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri kontuhartzailletza eta ingurumen sailari ematea.

### **3.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2014ko urriko faktura.**

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa: atez-atekoa, landa eremukoa eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

\* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiena.

\* **Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2014ko urriari dagokion faktura, 2014/332 ( 143.437,45€-koa), aurkeztu du.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako faktura (irailari dagokiona). Kopuru osoa: 143.437,45 €.

**BIGARRENA-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

### **4.- Tolosako Kondeko Aldapa 11ko araubide bereziko etxe bizitza tasatuei dagokien oinarrien aldaketa, izapidetza berria eta aurretik tramitatutako guztia bertan behera uztea.**

2014ko otsailaren 11n argitaratu ziren Tolosako Kondeko Aldapa 11ko araubide bereziko etxebizitza tasatuak esleitzeko oinarriak, Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak 2014ko urtarrilaren 24an egindako bilkuran onartutakoak.

Esleipenaren prozesuarekin hasi eta izena emateko epean soilik 12 eskaera jaso ziren, eta hauetatik 8 eskatzaileek atzera egin zuten salerosketa kontratun pribatua sinatu baino lehenago.

Horrenbestez, esleipena bertan behera utzi zen, izena eman zuten eskatzaileei jakinaraziz promozioa berriro ere martxan jarriko balitz oinarrien berri emango zitzailea.

Horiek horrela, 2014ko urriaren 14an, Promotora Iparra Berri, S.L., enpresak Oinarrizko projektua aurkeztu du eta Kondeko Aldapa 11n,11 etxebizitza tasatu eraikitzeko behin-behineko kalifikazioa eskatu du.

Udal Arkitektoak projektua indarrean dagoen araudia betetzen duela adierazi du eta behin-behineko kalifikazioaren aldeko txostena egin du 2014ko abenduaren 15ean.

Funtsean, aurkeztutako proiektu berriak etxebizitzaren antolamendu berria aurkezten du, orain, 3 logelatako 8 etxebizitza eta 2 logelatako 3 etxebizitza proposatzen direlarik, eta aurreko proiektuarekiko azalera ere zerbait aldatzen direlarik.

Prezioak ere egokitu egin dira, Tolosako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantzak araubide bereziko etxebizitza tasatuentza ezartzen duen gehieneko 1,7ko indizea baino baxuagoa izanik, etxebizitzaren kokapena eta azalaren arabera aldatzen direlarik, horrela, lehenengo solairuko azalera txikiena duen etxebizitzari 1,14 indizea aplikatuko zaio eta laugarren solairuko azalera handiena duen etxebizitzarin 1,38 indizea aplikatuko zaiolarik.

Etxebizitzak ordaintzeko modua ere aldatu da: %30a esleipena gauzatzeko salerosketa kontratu pribatua sinatu eta onesten denean ordaindu beharko da eta gainontzeko %70a, etxebizitza tasatuen ematea gauzatzeko eskritura publikoak sinatzerakoan.

Gainera, etxebizitza guztiak sukaldeko altzariekin eta hornituta entregatuko dira.

Aurreko guztia ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** 2014ko otsailaren 11n argitaratuko oinarrien baitan, Kondeko Aldapa 114ko etxebizitza tasatuen esleipenari dagokion tramitazio guztia bertan behera uztea.

**Bigarrena.-** Bere garain onartutako oinarriak goran azaldutako aldaketekin onartzea.

**Hirugarrena.-** Espedienteari hasiera ematea Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Esleipenean parte hartzeko eskabidea eta gainontzeko agiriak bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**Laugarrena.-** Erabakiaren berri Iparra Berri, S.L., promotoreari ematea.

### **5.- Diru laguntzak familiei.**

**5.1.** Gizarte Politikak eta Osasun batzarrak C.G. familiari buruz egindako diktamena ikusirik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHEN.-** Etxebizitaren alokairuari dagokion zorra kitatzeko 690 €ko diru laguntza ematea C.G familiari.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea eskatzaileari, Kontuhartzaileari, eta Gizarte eta Osasun departamentuari.

-----

**5.2.** Gizarte Politikak eta Osasun batzarrak A.A. kasuari buruz egindako diktamena ikusirik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHEN.-** Etxe mantenura beharrezko dituen gastuei aurre egiteko 119,74 €ko diru laguntza ematea A.A familiari.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea eskatzaileari, Kontuhartzaileari, eta Gizarte eta Osasun departamentuari.

### **6.- Jangela soziala -hobari eskaera-**

I.I.A. jaunak jangela sozialeko tarifetan hobaria eskatu du eta Gizarte Politikak eta Osasun batzarrak egindako diktamena ikusirik Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Urriko eta azaroko hobaria onartzea.

**BIGARREN.-** Gerora begira ere, momentu puntualetan hobaria ezartzea.

**HIRUGARREN.-** Erabaki honen berri ematea eskatzaileari, Kontuhartzaileari, Gizarte eta Osasun departamentuari eta Uzturre Asistentzia Guneari.

### **7.- 2015eko neguko kultur programazioa.**

Neguko ikuskizun-programazioari buruz Kultura batzordeak 2014.12.09an egindako proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Ondoren aipatzen den egitaraua eta aurrekontua onartzea, 2015ko aurrekontuari lotuta:

IKUSKIZUN ESZENIKOAK ETA MUSIKA  
NEGUA 2015

Eguna	Ordua	Lekua	Ikuskizuna	Katxeta	Produkzioa	GUZTIRA
Urtarrilak 16	20:30	Topic	THE ROMANTICOS	363,00 €	200,00 €	563,00 €
Urtarrilak 17	17:00	Leidor	HIUR TXERRITXOAK ETA OTSOA	2.597,00 €	500,00 €	3.097,00 €
Urtarrilak 23	20:30	Leidor	DE CUERPO PRESENTE (Una comedia de muerte) – Glu-Glu konpainia	4.229,00 €	800,00 €	5.029,00 €
Urtarrilak 30	20:30	Leidor	EL INTERPRETE – Asier Etxeandia	4.000,00 €	800,00 €	4.800,00 €
Otsailak 6	20:30	Topic	DEMODE QUARTET - “Epa!” diskoaren aurkezpena	3.250,00 €	500,00 €	3.750,00 €
Otsailak 20	20:30	Leidor	100 METRO KARRATU – Txalo konpainia	1.815,00 €	800,00 €	2.615,00 €
Otsailak 27	20:30	Leidor	DIVENIRE - Circle of Trust eta Logela multimedia	1.888,00 €	800,00 €	2.688,00 €
Martxoak 6	20:30	Topic	HOMBRES + HOMBRES – Macho-Maris	1.331,00 €	500,00 €	1.831,00 €
Martxoak 7		Leidor	PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS			0
Martxoak 7	20:30	Topic	MIKEL URDANGARIN		500,00 €	500,00 €
Martxoak 13	20:30	Leidor	ERDIBANA – Txalo konpainia	4.598,00 €	800,00 €	5.398,00 €
Martxoak 21		Topic	AHOZKOTASUNAREN GALA	6.655,00 €	500,00 €	7.155,00 €
Martxoak 27	20:30	Topic	BIDE ERTZEAN - “77” biraren azken kontzertua Kulturzale eskuorriak, bonoak eta kartelak	1.815,00 €	600,00 €	2.415,00 € 1.815,00 €
<b>GUZTIRA</b>						<b>41.656,00 €</b>

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura departamentuari eta interesatuei.

### **8.- Tolosako Musika Banda. 2015Eko egutegia.**

Tolosako Musika Bandaren 2015eko egutegiari buruz Kultura batzordeak 2014.12.09an egindako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Ondoren aipatzen den egutegia onartzea:

Data	TMB EGUTEGIA	
URTARRILA	5	Errege zamalkada / Cabalgata de Reyes
	6	Errege kontzertua / Concierto de Reyes
OTSAILA	1	Iurreamendiko kontzertua / Concierto en Iurreamendi



	8	Iñauteri kontzertua / Concierto de Carnaval
	14	Danborrada / Tamborrada
	15	Diana
MARTXOA	28	Pazko kontzertua / Concierto de Pascua
APIRILA	25	Udaberriko kontzertua / Concierto de primavera
MAIATZA	30	Aste Musikariako kontzertua / Concierto Semana Musical
EKAINA	5	Korpus Kristiko prozesioa / Procesión del Corpus Christi
	23	San Juan sua / Fogata de San Juan
	24	San Juan diana / Diana de San Juan
	24	San Juan prozesioa / Procesión de San Juan
	24	San Juan kontzertua / Concierto de San Juan
	24	San Juan konpletak / Completas de San Juan
	24	San Juan aureskua / Auresku de San Juan
UZTAILA	3	Amarozko kontzertua / Concierto en Amaro
	24	Gau Giro kontzertua / Concierto Gau Giro
IRAILA	17	Garagardo Periaeren Kalejira / Kalejira de la Feria de la Cerveza
URRIA	25	Udazkeneko kontzertua / Concierto de Otoño
AZAROA	22	Santa Zezili kalejira / Pasacalles de Santa Cecilia
	22	Santa Zezili kontzertua / Concierto de Santa Cecilia
ABENDUA	24	Gabonetako kontzertua / Concierto de Nochebuena
	24	Gabonetako kalejira / Pasacalles de Nochebuena
	31	Urte Zahar kalejira / Pasacalles de Nochevieja

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea , Kultura departamentuari eta Tolosako Udal Musika bandari.

### **9.- Fundación Goyenechea de San Sebastian. Baratzak. Salbuespena edo hobaria.**

2014 urtean, Fundación Goyeneche de San Sebastianek lurramendin dauden baratza bat erabiltzeko baimena lortu zuen. 8 hilabetez erabili dute baratza.

Ordenantza Fiskaletako 2.2.12 eranskinak, lurramendiko udal baratzen erabilpenarengatik ordaindu beharreko tasa erregulatzen du. Elkarteen kasuan, 180,90 euro dira urteko. Hilabeteka proportzionalki banatuko da kuota erabilpenaren hastapenean edo gelditzean. Kasu honetan, beraz, 8 hilabeteetan erabili denez, 120,60 euro dagozkie.

Honen aurrean, Fundación Goyenechek hobaria edo salbuespena eskatu du. Elkartea irabazi asmorik gabeko entitate dela diote eta, gaur egun, Tolosan, minusbaliotasun intelektuala duten 12 pertsonaz arduratzen direla gaineratu dute. Interes sozialeko zerbitzuak eskeintzen dituztenez, hobaria edo salbuespena eskatzen dute baratza erabiltzeagatik likidatutako tasan.

Ordenantza Fiskaletan ez da inongo hobaririk edo salbuespenik aurreikusten.

Hori guztia ikusirik Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Fundación Goyeneche de San Sebastiani baratzaren tasan hobaria edo salbuespena ez ematea.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

### **10.- Solicitud de Cristalería Tolosa. Minoración del importe en la tasa de residuos.**

Con fecha 27 de noviembre de 2014, Juan Carlos Mendez Hernandez, en nombre y representación de Cristalería Tolosa, ha solicitado una minoración en la tasa de residuos para el año 2015.

Juan Carlos Mendez señala que, debido a la actividad que desarrolla en su comercio, tanto en la tienda como en el taller (venta de vidrio al por menor y artículos de decoración), no genera ningún tipo de basura orgánica, ni embalajes de cartón o plástico. Según él, los únicos residuos que genera son recortes de vidrio que él mismo lleva a Garbigune. Por ello solicita una minoración en la tasa de residuos.

Para resolver esta cuestión debemos partir de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, cuyo artículo 20.1 marca la definición de Tasa y las condiciones de exigibilidad de la misma, vinculada a la prestación de un servicio público, señalando a continuación una serie de supuestos susceptibles de sometimiento a Tasa, entre los que recoge, en el apartado 3.s) del citado artículo 20, el servicio de recogida de residuos sólidos. En cumplimiento de las prescripciones de dicha Norma Foral, se ha aprobado por el Ayuntamiento la correspondiente Ordenanza Reguladora de Tasas por prestación de Servicios Públicos y Realización de actividades.

De dicha regulación se desprende que la exigibilidad de la Tasa que nos ocupa se vincula con la prestación misma del servicio, esto es, con la posibilidad de hacer uso del mismo, pero con total independencia del grado de uso del referido servicio que el sujeto pasivo de la tasa efectúe, de modo que la utilización concreta no resulta relevante para determinar su exacción. En este sentido, es doctrina reiterada del Tribunal Supremo, como puede verse en sentencias como la de 24 de febrero de 2004, que “ en la Tasa de recogida de basuras o de eliminación de residuos sólidos, no es precisa la generación de aquéllas o de éstos por parte de los contribuyentes para que se genere la obligación de abonar la cuota tributaria de la misma, pues lo determinante de su hecho imponible es la posibilidad de hacer uso de tal servicio, con abstracción de que el interesado afectado no haya contribuido o no haya podido contribuir a la generación de dichos residuos, basuras o desperdicios.” Por lo tanto, la tasa es exigible.

Por otra parte, en la tarifa fija de la tasa de residuos, no se contempla ningún tipo de bonificación para los casos en los que la generación de residuos es menor.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ACUERDA**

**PRIMERO.-** No conceder la minoración en el importe de la tasa de residuos para el año 2015 a Cristalería Tolosa.

**SEGUNDO.**- Dar cuenta de este acuerdo al Departamento de Intervención y al interesado a los efectos oportunos.

**11.- Congregación Hermanas de la Providencia de GAP. Berraztertze errekurtsua Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan.**

2014ko azaroaren 5ean, Blanca Garcia Diazek, Congregación Hermanas de la Providencia de GAPen izenean, berraztertze errekurtsua jarri du 5183883V zenbaki finkoa duen 2014ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren agiriaren aurka.

Aipatutako agiria San Frantzisko 23-2 C etxebizitzari dagokio. Bertan, kongregazioko erlijiosoak bizi eta erroldatuta daudela frogatu dute.

6/1990 Foru Dekretuaren 7. artikuluari jarraituz, dagokion txosten teknikoa luzatzea eskatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiari. Jasotako txostenaren arabera:

“ ...Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan Eliza katolikoarenak diren higieziei salbuespena aplikatu ahal izango da Akordioak IV. Artikuluan xedatzen dituen erabilera dutela egiaztatzen den kasuetan soil soilik.

Salbuespena eskatu den higiezinari dagokionez, katastroan jasotako datuetan etxebizitza eta trasteleku erabilerak dituela ageri da. Aurkeztu den idatzian adierazten denez, kongregazioaren erlijiosoak bertan bizi eta erroldatuta daude.

Hori guztiagatik, iritzi daiteke higiezin hori Akordioak IV. Artikuluan xedatzen dituen helburuetara lotuta dagoela, eta hortaz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzeaz salbuestea posible dela...”

Etxebizitza horretan lau emakume bizi dira (Eranskinean azaltzen dira). Ez du ziurtagiririk aurkeztu bertan erroldatutako emakumeak erlijiosoak direla ziurtatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko txostenean oinarrituz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**Lehena.**- Bertan diren emakumeak erlijiosoak diren ziurtagiria eskatu Congregación Hermanas de la Providencia de Gap-i.

**Bigarrena.**-5183883V zenbaki finkoa duen higiezinari (San Frantzisko 23-2 C etxebizitzari dagokiona) Ondasun Higiezinaren Zergan salbuespena ematea 2014 urtetik aurrera, beti ere bertan erroldatuta daudenak erlijiosoak direla ziurtatzen badute.

**Hirugarrena.**- Kontzeptu horregatik, 2014ko urriaren 23an ordaindu duen likidazioa anulatu eta dirua itzultzea (1.141,92 €) aurreko puntuan aipatutako ziurtagiria aurkeztzen badute.

**12.- Recurso de reposición de Herrodle, S.L.. Exención de la tasa de residuos.**

Con fecha 26 de junio de 2014, Herrodle, S.L., solicitó la anulación o exención de la tasa de recogida de residuos al entender que no se presta el servicio que da lugar a la tasa.

La Junta de Gobierno, el día 24 de octubre de 2014, acordó por unanimidad denegar la exención en la tasa de residuos y, por tanto, no anular los recibos emitidos en su día.

El día 5 de diciembre de 2014, Herrodle, S.L. ha interpuesto un recurso de reposición ante dicho acuerdo.

Herrodle, S.L. es propietario de los locales ubicados en la calle Batxiler Zaldibia 3 y Rondilla 50 (supermercados TodoTodo). Al tener la actividad de "Supermercados", se les envió los recibos de la tasa de residuos de 2.155,30 euros por cada local.

La Ordenanza Fiscal señala en su artículo 1: "Constituye el hecho imponible de la Tasa de prestación del servicio de recepción obligatoria de recogida de basuras domiciliarias y residuos sólidos, urbanos de viviendas, alojamientos y locales o establecimientos."

Herrodle, S.L., remarca que todos los residuos de cartón, plástico y residuos orgánicos son retirados por sus camiones al almacén central, por lo que el Ayuntamiento no presta tal servicio de recogida.

Para resolver esta cuestión debemos partir de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, cuyo artículo 20.1 marca la definición de Tasa y las condiciones de exigibilidad de la misma, vinculada a la prestación de un servicio público, señalando a continuación una serie de supuestos susceptibles de sometimiento a Tasa, entre los que recoge, en el apartado 3.s) del citado artículo 20, el servicio de recogida de residuos sólidos. En cumplimiento de las prescripciones de dicha Norma Foral, se aprobó por el Ayuntamiento la correspondiente Ordenanza Reguladora de Tasas por prestación de Servicios Públicos y Realización de actividades, en cuyo Anexo 2.1.6. se recoge la Tasa por servicio de basuras.

De dicha regulación se desprende que la exigibilidad de la Tasa que nos ocupa se vincula con la prestación misma del servicio, esto es, con la posibilidad de hacer uso del mismo, pero con total independencia del grado de uso del referido servicio que el sujeto pasivo de la tasa efectúe, de modo que la utilización concreta no resulta relevante para determinar su exacción. En este sentido, es doctrina reiterada del Tribunal Supremo, como puede verse en sentencias como la de 24 de febrero de 2004, que " en la Tasa de recogida de basuras o de eliminación de residuos sólidos, no es precisa la generación de aquéllas o de éstos por parte de los contribuyentes para que se genere la obligación de abonar la cuota tributaria de la misma, pues lo determinante de su hecho imponible es la posibilidad de hacer uso de tal servicio, con abstracción de que el interesado afectado no haya contribuido o no haya podido contribuir a la generación de dichos residuos, basuras o desperdicios."

Según informe técnico de Tolosaldeko Mankomunitatea, sí que se les presta el servicio con independencia de que ellos hagan uso del mismo.

Por otra parte, señalan que se incumple el principio de proporcionalidad y de equivalencia. Para ello, indican que la Sentencia del Tribunal Supremo de 30 de noviembre de 2002 y 19 de abril de 2005 dicen: "las tasas encuentran su límite máximo en ese coste real o previsible que globalmente pueda representar para cada Corporación la prestación de esos servicios o la realización de esas actividades."

Asimismo, señalan que el artículo 7 de la Norma Foral 2/1990 del TH. De Gipuzkoa de 11 de enero de Tasas y Precios Públicos establece: "Las tasas tenderán a cubrir el coste del servicio o la actividad que constituya su hecho imponible."

En este sentido, hay que subrayar que los ingresos generados por las tasas de basuras es inferior al coste real que globalmente representa para Tolosa la prestación del servicio de recogida de basuras. Por lo tanto, no se incumplen los principios de proporcionalidad ni de equivalencia.

En consecuencia, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ACUERDA**

**PRIMERO.-** Desestimar el recurso de reposición de Herrodle, S.L., y, por tanto, no conceder la exención en la tasa de residuos.

**SEGUNDO.-** Dar cuenta de este acuerdo al Departamento de Intervención y al interesado a los efectos oportunos.

### **13.- Garabide elkartearekin hitzarmena.**

Garabide elkarteak urteak daramatza garapenerako euskal lankidetzaren barruan kooperazio ildo berri bat lantzen: garapen-bidean dauden herrietako hizkuntza normalizatzeko egitasmoak sustatzea, honako helburu hauekin:

- 1.- Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetzaren bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta.
- 2.- Norabide horretan, munduko Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuak eragileekin lankidetzaren proiektuak garatzea. Lankidetzaren proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-ator batzuetangauzatzen dira, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarriz.
- 3.- Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuak lankidetzarako beren esperientzia eskaini dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.

Tolosako Udala, bere aldetik, diru laguntzak eman ohi ditu, garapen-bidean dauden herrietan proiektuak sustatzeko.

Hori dela eta, Hizkuntza Politikak eta Hezkuntza Batzordeak jaulkitutako diktamena ikusirik, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmanez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Tolosako udala eta Garabide Elkartearen arteko hitzarmena onartzea.

**BIGARRENA.-** Garabide elkarteari 2.000 euroko subentzioa ematea.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmena sinatzeko eta beharrezkoak izan daitezkeen gainontzeko izapideak burutzeko Alkatea ahalmentzea.

**LAUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Garabide Elkarteari eta Hizkuntza Politikak eta Hezkuntza eta Kontuhartzailtza departamentuei.

#### **14.- Diru-laguntzak kanpoko ikasleei.**

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** Ondorengo koadroan Udal euskaltegitik kanpo ikasten aritutako euskara ikasleei diru laguntzak ematea:

<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>DIRU LAGUNTZA</b>
F.G.G.	125 euro
L.A.E.	147 euro

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari eta interesatuei.

#### **15.- lurre auzoko 14,16,18,20 eta 22 zenbakiko barne parkea berritzeko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeke baldintza pleguak onartzea.**

lurre auzoko parkea berritzeko proiektua, Udal Bulegoko Teknikoak idatzia 2014ko abenduko datarekin

Ikusita aipameneko proiektuko obrak, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, kontratatzeke klausula administratibo partikularren agiría, Hirigintza, Herri azpiegiturak eta Auzoak Batzordea egindako proposamena ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**Lehena.-** Onartzea lurre auzoko 14,16,18,20 eta 22 zenbakiko barne parkea berritzeko proiektua, Udal Bulego teknikoak idatzia 2014ko abenduaren datarekin.

**Bigarrena-** Onartzea lurre auzoko parkea berritzeko proiektuan jasota dauden obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeke espedientea. Licitazio tipo da 96.632,83 eurokoa (BEZa barne).

**Hirugarrena.**- 96.632,83 euroko gastua, onartzea.

**Laugerrena.**- Onartzea klausula administratibo partikularren agiria, aipameneko obrak kontratatzeko, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea dagozkion gonbidapenak eginez.

**16.- Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordelekua egiteko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeko baldintz pleguak onartzea.**

Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordeleku bat egiteko proiektua idatzi dute Ander Auzmendi, Maria Gurrutxaga eta arkitekto laguntzaileak Aoira Astiz eta Itziar Lopetegik 2014ko abenduaren datarekin.

Ikusita Larraitz Bernedo Erretengibeleko arkitektoak 2014ko abenduaren 16an egin duen txostena eta berarekin ados, Hirigintza, Herri azpiegiturak eta Auzoak Batzordea egindako proposamena ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**Lehena-** Onartzea Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordeleku bat egiteko proiektua idatzi dute Ander Auzmendi, Maria Gurrutxaga eta arkitekto laguntzaileak Aoira Astiz eta Itziar Lopetegik 2014ko abenduaren datarekin

**Bigarrena-** Onartzea Korreo kaleko barne patioan bizikleta gordeleku bat egiteko proiektuan jasota dauden obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko espedientea. Lizitazio tipo da 137.658,72 eurokoa (BEZa barne).

**Hirugarrena.**-137.658,72 euroko gastua, onartzea.

**Laugerrena-** Onartzea klausula administratibo partikularren agiria, aipameneko obrak kontratatzeko, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea dagozkion gonbidapenak eginez.

**17.-Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko proiektua. Proiektua eta obrak kontratatzeke baldintz pleguak onartzea.**

Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko proiektua, Udal Bulegoko Teknikoak idatzia 2014ko abenduko datarekin.

Ikusita aipameneko proiektuko obrak, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, kontratatzeke klausula administratibo partikularren agiria, Hirigintza, Herri azpiegiturak eta Auzoak Batzordea egindako proposamena ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**Lehena-** Onartzea Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko I proiektua, Udal Bulego teknikoak idatzia 2014ko abenduaren datarekin.

**Bigarrena.-** Onartzea Martin Jose Iraola kaleko (bikoitiak) zorua berritzeko proiektuan jasota dauden obrak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeke espedientea. Lizitazio tipo da 66.791,26 eurokoa (BEZa barne).

**Hirugarrena.-** 66.791,26 euroko gastua, onartzea.

**Laugarrena.-** Onartzea klausula administratibo partikularren agiria, aipameneko obrak kontratatzeke, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea dagozkion gonbidapenak eginez.

**18.- 40/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailtzak **40/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **444.800,03€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutrik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** 40/2014 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

**Eta gai zerrendatik kanpo, gai hau presazkoa deklaratu da aho batez.**



**Tolosako Amarotz auzoan gi-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amarotz auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 7. ziurtagiria (fv1-1412-0029 faktura)**

Udaleko Gobernu Batzarraren ebazpen bidez, 2014ko martxoaren 28an, Campezo Obras y Servicios, S.A, enpresari esleitu zitzaion "Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 Errepidean Galtzada Aldatzeko eta Amarotz Auzoan Berdeguneak Sortzeko Urbanizazio Osagarrien Obrak Egiteko" kontratua, 1.612.601,25 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, BEZ barne ondorengoak direlarik zenbatekoak:

*Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa*

1. ziurtagiria.....	FV1-1406-0009.....	77.763,59 €
2. ziurtagiria.....	FV1-1406-0047.....	154.064,39 €
3. ziurtagiria.....	FV1-1408-0002.....	78.683,35 €
4. ziurtagiria.....	FV1-1409-0021.....	158.986,70 €
5. ziurtagiria.....	FV1-1410-0024.....	224.834,17 €
6. ziurtagiria.....	FV1-1411-0034.....	357.173,15 €

GUZTIRA..... 1.051.505,35 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako zazpigarrena, honakoa da:

*Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa*

7. ziurtagiria.....FV1-1412-0029.....305.193,88 €

Ziurtagiri hau aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**Lehenen.-** Onartzea "Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 Errepidean Galtzada Aldatzeko eta Amarotz Auzoan Berdeguneak Sortzeko Urbanizazio Osagarrien Obrak Egiteko" kontratuaren 7. ziurtagiria (fak zkia: FV1-1412-0029) 305.193,88 € (BEZ barne).

**Bigarren.-** Erabaki honen berri ematea Campezo Obras y Servicios, S.A, enpresari eta Kontuhartzailetzari.

**Fatxada margotzeagatik diru laguntza.**

Aurten, Foruen Etorbidea 3 zk. dun etxearen fatxada margotu dute jabeekideek.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez balituta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Foruen Etorbidea 3zk.dun etxearen jabeekideei 795,00 €-ko diru laguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 12:30etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**